



2022ko

# Euskaraldiaren ikerketa | Euskal Herria

## Laburpena

2023ko iraila



**Siadeco**<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia

943 31 00 34

[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)





## Aurkibidea

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>3.</b>
<b>2. Ikerketaren aurkezpena.....</b>	<b>4.</b>
<b>3. Emaitza nagusiak.....</b>	<b>11.</b>
<b>3.1. NORBANAKOAK.....</b>	<b>12.</b>
3.1.1. Izen-emateaz.....	12.
3.1.2. Karakterizazioa .....	16.
3.1.3. Parte hartzeko prozesua .....	19.
3.1.4. Ariketako jarduna .....	22.
3.1.5. Euskaraldiaren eragina.....	25.
3.1.6. Aurrera begira .....	29.
<b>3.2. ENTITATEAK.....</b>	<b>33.</b>
3.2.1. Izen-emateaz.....	33.
3.2.2. Entitateetako partaideen euskara-maila .....	34.
3.2.3. Parte-hartzeko prozesua .....	35.
3.2.4. Ariketako jarduna .....	40.
3.2.5. Euskaraldiaren eragina.....	42.
3.2.6. Aurrera begira .....	46.



# 1. Sarrera

Ariketa sozial masibo bat da Euskaraldia, euskara gutxienez ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko helburua duena. Hirugarren edizioa izan du 2022ko udazkenean —2018an eta 2020an izan ziren aurrekoak—. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egin da.

Euskaraldian bi parte-hartzaile mota daude:

## 1. Norbanakoak:

Ahobizi edo belarriprest rolen bitartez parte hartu ahal izan dute, betiere gutxieneko bi baldintza betez gero: 16 urte baino gehiago izatea eta gutxienez euskara ulertzeko gai izatea. Euskaraldian zehar hartu nahi zuten jokabideagatik hautatu behar izan dute rola: ahobiziek euskaraz egiten dute uneoro solaskideak euskara ulertzen duela dakitenean; eta belarriprestek adierazten dutena da euskara dakitenean haiei euskaraz hitz egitea nahi dutela; horixe eskatzen dute modu esplizituan, euskaraz hitz egiteko gai izan ala ez. Ondoren, aldiro erabakiko dute euskaraz noiz eta norekin egin.

## 2. Entitateak:

Bakarkako ariketa izatetik, taldean ere egiteko aukera izan da bigarren eta hirugarren edizioan, entitateen bidez. Entitate gisa Euskaraldian parte hartzeko, babesgune bereziak sortu dira: ariguneak edo euskaraz lasai aritzeko guneak. Horietan, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen da uneoro. Ariguneetako kideak, halaber, ahobizi edo belarriprest izan dira.

Erakunde publikoen eta gizarte eragileen arteko elkarlana da Euskaraldiaren beste ezaugarri nagusia. Izan ere, Euskaltzaleen Topagunearekin batera, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa ere ekimenaren sustatzaile dira. Nahiz eta Euskal Herri mailako ariketa izan, tokian toki antolatzeke ardura dute herri-batzordeek, bertako euskaltzaleek, eragile sozialek, tokiko erakundeek... osatutako lantaldeen bidez.

## 2. Ikerketaren aurkezpena

Euskaraldia ekimenaren 2022ko dinamika ebaluatzeko ikerketa egin du Siadeco Ikerketa Elkartek, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Nafarroako Gobernuaren Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Euskararen Erakunde Publikoak eskatuta eta Euskaltzaleen Topagunearekin lankidetzan.

Bi zati izan ditu ikerlanak. Lehendabizikoan, Euskaraldian izena emandako norbanakoen eta entitateen unibertso osoari buruzko datuak aztertu dira, izen-ematearen datu kuantitatiboak ezagutzeko. Bigarrenean, lagin bidezko inkestetik eta informazio kualitatiboa jasotzeko teknikak erabiliz jaso da informazioa, Euskaraldiaren jarduna eta eraginaren azterketa sakonagoa egiteko.

Euskararen Ereku Osorako egindako azterlanari dagozkion emaitza nagusien laburbilduma jasotzen da txosten honetan.

### 2.1. Lehen zatia: 2022an Euskaraldian izena emandako norbanako eta entitateen unibertso osoaren datuak aztertzea.

#### Izen-ematea egindako norbanako eta entitate kopurua

2022ko ediziorako izen-ematea egin duten bai norbanako eta bai entitateen datu-oinarrietako informazioa aztertu da. Euskaltzaleen Topagunetik jaso da izen-emateen erregistroa, eta ondoren Siadecori entregatu zaio. Norbanakoen datu-oinarriak, guztira, 158.440 erregistro zituen; eta entitateenak, aldiz, 8.610 erregistro.

#### Unibertso osoaren datuekin egindako analisia

Izena ematerakoan norbanako eta entitateei eskatutako informazioa oinarri hartuta, ikerketaren lehen zatian ondorengo aztertu da:

##### Norbanakoetan:

- Zenbat ahobizi eta zenbat belarriprest izan diren 2022an, eta aurreko bi edizioekiko zer bilakaera izan den.
- Zenbat izen-emate izan diren, eskualdeen arabera eta eremu linguistikoaren arabera.
- Zenbat izen-emate izan diren, adinari jarraiki, eta aurreko edizioarekiko bilakaera.
- Euskaraldian izena emandako norbanakoak zenbat izan diren, unibertso potentzialarekiko, hau da, euskalduna edo ia euskalduna den 16 urtez gorako biztanleriarekiko.

##### Entitateetan:

- 2022ko edizioan izena eman duten egoitza kopurua, 2020tik izandako bilakaera ere aztertuz.
- Zenbat egoitza izan diren, eskualdeen arabera eta eremu linguistikoaren arabera.
- Eta zenbat egoitza izan diren, jarduera-mota eta langile/kide edota partaide kopuruaren arabera.

## 2.2. Bigarren zatia: inkesta eta lagin-unitate estrategikoen bitartez eskuratutako datu kuantitatiboak eta azterketa kualitatiboa, norbanako zein entitateen Euskaraldiko jarduna eta jardun horren eragina ebaluatzeko

Teknika kuantitatiboak zein kualitatiboak erabili dira parte-hartzaileen jardunari eta eraginari buruzko azterketa egiteko.

### a) Inkesta bidezko datu-bilketak

#### Norbanakoen inkesta

Norbanakoen lagin adierazgarri bati egin zaio inkesta, hiru momentu ezberdinetan: Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta Euskaraldiaren ondoren. Lortutako lagina, 3.122 norbanakok osatu dute, eta pertsona horiek, hiru bider erantzun diote inkestari, momentuaren arabera eta Euskaraldia ebaluatzeko egindako galderen arabera. Datu guztiak orokorrean aztertu dira, baina ondorengo aldagaiekin gurutzatuta aurkeztu dira: herrialdea, rola, generoa, adina eta gune soziolinguistikoa. Kasu hauetan aldeak egon direnean besterik ez dira aipatu.

Euskaraldiaren aurretik, bitartean eta ondoren, hiru momentu ezberdinetan egindako inkesten datak, lagina eta jasotako informazioaren helburuak ondorengoak dira:

#### 1. taula. Norbanakoei egindako hiru inkesten momentuak, lagina eta helburuak

Garaia	Lagina	Helburu nagusia
<b>1. Landa-lana, Euskaraldiaren aurretik</b> 2022ko urriaren 28tik azaroaren 22ra	7.156	Euskaraldiaren aurretik neurtzea: hartutako rola, parte hartzeko arrazoiak, parte-hartzailearen zein inguruko motibazio-maila, euskararen erabilera-maila egoera ezberdinetan eta haiekiko jarritako helburuak, Euskaraldiaren aurretik hartutako hizkuntza-jokabideak.
<b>2. Landa-lana Euskaraldian zehar</b> 2022ko azaroaren 23tik abenduaren 6ra	3.751	Euskaraldian zehar neurtzea: parte-hartzailearen zein inguruko motibazio-maila, euskararen erabilera-maila egoera ezberdinetan, Euskaraldian zehar hartutako hizkuntza-jokabideak eta erraztasun/zailtasun-maila, rola araberako jokabideak betetzen ari diren eta rola erraztasun/zailtasun-maila.
<b>3. Landa-lana, Euskaraldiaren ondoren</b> 2023ko urtarrilaren 23tik otsailaren 21era	3.122	Euskaraldiaren ondoren neurtzea: euskara-gaitasuna, txaparen erabilera, parte-hartzailearen zein inguruko motibazio-maila, euskararen erabilera-maila egoera ezberdinetan, Euskaraldiaren ondoren hartutako hizkuntza-jokabideak eta erraztasun/zailtasun-maila, ariguneetako jarduna, ariketaren eragina eta hizkuntza-ohituren aldaketa eta hurrengo ediziorako espektatibak.

Iturria: Siadeco, 2023

## Entitateen inkesta

Euskaraldia dinamikaren baitan ariguneak sortzeko izena eman duten entitateen egoitzen ezaugarrietan eta parte-hartze horrek haien egunerokoan izan duen eraginean sakontzeko, inkesta bidez jaso dira datuak, baita ere.

Kontuan hartu behar da, kasu batzuetan, entitate batek egoitza edo establezimendu bakarra duela —herri bateko euskara elkarteak, adibidez—; baina beste batzuetan, entitate batek hamarnaka egoitza edo establezimendu dituela —supermerkatu-kateak edo finantza-erakundeak, adibidez—.

Norbanakoekin egin bezala, entitateetan ere, hiru momentu ezberdinetan egin da inkesta, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren, eta 895 entitateekin osatutako lagina lortu da; entitate horiek, hiru bider erantzun dute galdetegia, hiru momentu ezberdinetan.

### 2. taula. Entitateei egindako hiru inkesten momentuak, lagina eta helburuak

	Garaia	Lagina	Helburu nagusia
<b>1. Landa-lana, Euskaraldiaren aurretik</b>	2022ko urriaren 31tik azaroaren 22ra	1.703	Euskaraldiaren aurretik neurtzea: parte hartzeko arrazoiak, motibazio-maila, Euskaraldiarekiko jarritako helburuak eta euskararen erabilera-maila entitatearen harreman-mota ezberdinetan
<b>2. Landa-lana Euskaraldian zehar</b>	2022ko azaroaren 22tik abenduaren 5era	1.259	Euskaraldian zehar neurtzea: motibazio-maila, ariketa egiteko erraztasun/zailtasun-maila eta euskararen erabilera-maila
<b>3. Landa-lana, Euskaraldiaren ondoren</b>	2023ko urtarrilaren 23tik otsailaren 20ra	895	Euskaraldiaren ondoren neurtzea: entitateetako partaideen parte-hartze prozesua, ariketaren erraztasun/zailtasun-maila, txapa eta identifikagarrien erabilera, ariketaren eragina, hizkuntza-ohituren aldaketa, euskararen erabilera-maila, motibazioa euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko eta hurrengo ediziorako espektatibak

Iturria: Siadeco, 2023

## b) Teknika kualitatiboetan oinarritutako azterketa

Inkesta bidezko datuez gain, informazio kualitatiboa ere jaso da, bai norbanakoena eta bai entitateena ere. Bi teknika erabili dira horretarako: elkarrizketa sakonak eta talde-dinamikak edo eztabaida-taldeak.

### Norbanakoen azterketa kualitatiboa

Inkesta bidez lortutako emaitza kuantitatiboak, elkarrizketa bidez eta talde-dinamiketan jasotako informazio kualitatiboarekin osatu dira.

**Talde-dinamikak:** guztira, sei talde-dinamika egin dira: hiru EAEko parte-hartzaileekin, bi Nafarroakoekin eta bakarra Iparraldekoekin. Talde horietarako kideak aukeratzeko, hainbat aldagai hartu dira kontuan: lurraldea, rola, adin-tartea eta kasu batzuetan, baita herriaren tamaina ere.

**3. taula.** Talde-dinamiketan parte hartutako norbanakoen ezaugarriak

Talde-dinamika	Lurraldea	Rola	Adin-tartea	Udalerrri-mota
1	Gipuzkoa	Belarriprest	24-55 urte	Herri txiki euskaldunak
2	Araba	Ahobizi	40 urtetik gorakoak	Herri txiki erdaldunak
3	Bizkaia	Ahobizi/Belarriprest	16-40 urte	20.000 biztanlez gorako herriak
4	Nafarroa	Belarriprest	24-55 urte	Herri txiki euskaldunak
5	Nafarroa	Ahobizi-Belarriprest	16-40 urte	Iruña-Iruñerria
6	Iparraldea	Ahobizi	-	-

*Iturria: Siadeco, 2023*

**Elkarrizketak:** eztabaida-taldeetan jasotako informazioan sakontzea izan da elkarrizketa horiek egitearen helburua. Ahobizi zein belarriprestekin, denera, 24 elkarrizketa egin dira: 12 EAEko norbanakoekin, eta sei Nafarroako eta Iparraldekoekin. Horietako bakoitzarekin hiru neurketa-alditan hitz egin da: Euskaraldiaren aurretik, bitartean eta ondoren. Parte-hartzaileak hautatzeko, eremua, rola eta adin-tartea gurutzatu dira.

**4. taula.** Elkarrizketatutako norbanakoen ezaugarriak

Elkarrizketatu zenbakia	Lurraldea	Herri-mota	Rola	Adin-tartea
1	Araba	Hiriburua	Belarriprest	16-30 urte
2	Araba	Hiriburua	Ahobizi	30-44 urte
3	Araba	Herri handiak Gasteiz ez dena	Ahobizi	45-60 urte
4	Araba	Herri handiak Gasteiz ez dena	Belarriprest	60 urtetik gora
5	Bizkaia	Herri txiki erdaldunak	Belarriprest	30-44 urte
6	Bizkaia	Hiriburua	Ahobizi	16-30 urte
7	Bizkaia	Herri euskaldunak	Ahobizi	60 urtetik gora
8	Bizkaia	Herri erdaldunak	Belarriprest	45-60 urte
9	Gipuzkoa	Herri txiki euskaldunak	Ahobizi	16-30 urte
10	Gipuzkoa	Hiriburua	Belarriprest	30-44 urte
11	Gipuzkoa	1. eta 2. gune soziolinguistikoa Donostia ez dena	Ahobizi	60 urtetik gora
12	Gipuzkoa	1. eta 2. gune soziolinguistikoa Donostia ez dena	Belarriprest	45-30 urte
13	Nafarroa	Eremu euskalduna	Ahobizi	16-29 urte
14	Nafarroa	Eremu euskalduna	Ahobizi	60tik gora
15	Nafarroa	Eremu mistoa	Ahobizi	30-44 urte
16	Nafarroa	Eremu mistoa	Belarriprest	60tik gora
17	Nafarroa	Eremu ez-euskalduna	Belarriprest	16-29 urte
18	Nafarroa	Eremu ez-euskalduna	Belarriprest	45-60 urte
19	Lapurdi	-	Belarriprest	40tik gora
20	Lapurdi	-	Ahobizi	16-40 urte
21	Nafarroa Beherea	-	Ahobizi	40tik gora
22	Nafarroa Beherea	-	Belarriprest	16-40 urte
23	Zuberoa	-	Ahobizi	40tik gora
24	Zuberoa	-	Belarriprest	16-40 urte

*Iturria: Siadeco, 2023*



## Entitateen azterketa kualitatiboa

**Talde-dinamikak:** norbanakoekin egin bezala, entitateekin ere egin dira eztabaida-taldeak; kasu honetan, soilik Euskaraldiaren bukaeran. Denera zazpi eztabaida-talde egin dira: lau EAEn, bi Nafarroan eta bakarra Iparraldean. Kasu honetan, taldeak osatzerakoan bereziki erreparatu zaio lurraldeari eta entitate-motari.

**5. taula.** Talde-dinamiketan parte hartutako entitateen ezaugarriak

Eztabaida-talde zenbakia	Lurraldea	Entitate-mota
1	Araba	Herri merkataritza eta ostalaritza
2	Gipuzkoa	Gizarte mugimenduak
3	Bizkaia	Enpresa handiak
4	EAE osoa	Administrazio publikoa eta hezkuntza
5	Nafarroa	Administrazio publikoa eta hezkuntza
6	Nafarroa	Sektore pribatua (merkataritza, ostalaritza, gainerako zerbitzuak eta industria)
7	Iparraldea	Administrazio publikoa eta hezkuntza

*Iturria: Siadeco, 2023*

**Elkarrizketa sakonak:** 24 entitate ezberdinetako 24 ordezkariak osatutako lagin estrategiko bat osatu da, entitateak kokatutako eremua eta entitateen jarduera kontuan hartuta. Eta solaskide horietako bakoitza, hiru bider elkarrizketatu da, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta Euskaraldiaren ondoren. Guztira 72 elkarrizketa sakon egin dira. Hauek izan dira entitateetako ordezkariak aukeratzeko erabilitako irizpideak:

**6. taula.** Elkarrizketatutako solaskideen entitateen ezaugarriak

Elkarrizketatu zenbakia	Eremua	Entitate-mota
1	Araba	Hezkuntza
2	Araba	Administrazio publikoa
3	Araba	Enpresa pribatua
4	Araba	Gizarte mugimendua
5	Bizkaia	Merkataritza
6	Bizkaia	Hezkuntza
7	Bizkaia	Administrazio publikoa
8	Bizkaia	Gizarte mugimendua
9	Gipuzkoa	Enpresa pribatua
10	Gipuzkoa	Merkataritza
11	Gipuzkoa	Administrazio publikoa
12	Gipuzkoa	Hezkuntza
13	Eremu euskalduna	Enpresa pribatua
14	Eremu euskalduna	Gizarte mugimendua
15	Eremu mistoa	Merkataritza
16	Eremu mistoa	Administrazio publikoa
17	Eremu ez-euskalduna	Enpresa pribatua
18	Eremu ez-euskalduna	Hezkuntza
19	Lapurdi	Merkataritza
20	Lapurdi	Enpresa pribatua
21	Nafarroa Beherea	Administrazio publikoa
22	Nafarroa Beherea	Euskaltegia
23	Zuberoa	Administrazio publikoa
24	Zuberoa	Hezkuntza

*Iturria: Siadeco, 2023*

### 3. Eraitza nagusiak




### 3.1. Norbanakoak

#### 1) Izen-emateaz.

- 2022ko Euskaraldian 158.440 norbanakok eman dute izena; hamarretik ia zortzi Gipuzkoan eta Bizkaian. 2020ko edizioan baino 19.744 lagun gutxiago dira (% 11,1eko jaitsiera), eta Euskaraldian izena emateko aukera zutenen % 13,5. Aurreko edizioko joerari jarraiki, ahobizi rola hartu dutenak (% 77,6) belarriprest izan direnak (% 22,4) baino gehiago izan dira.
- Herrietako euskaldunen ehunekoa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta altuagoa da ahobizi rola hautatu dutenen portzentajea, eta baxuagoa, beraz, belarripresten –1.gune soziolinguistikoan % 71,8 izan da ahobizi, eta 4.gune soziolinguistikoan, aldiz, % 89,2–. Ahobizien ehunekoa altuagoa da Zuberoan (% 83,6), Nafarroa Beherean (% 83,0) eta Gipuzkoan (% 82,0).
- Urbanizazio-mailari dagokionez, bitarteko hiriguneko herri batean eman du izena parte-hartzaileen ia erdiak (% 46,1). Hiriguneko pisu handiagoa du Nafarroan (% 44,4), eta era berean, belarripresten artean dira gehiago hirigunekoak.
- Emakumezkoak dira nagusi (guztien % 64,2): lurralde eta adin-tarte guztietan eta bi roletan.
- Norbanakoen bi herenak baino gehiagok 30-60 urte ditu (% 67,5). 2020ko datuekin alderatuta, 45 urtetik beherakoek pisua galdu dute, eta gorakoek, aldiz, irabazi. Rola hautatzerakoan, adinaren arabera joera argia da: adinean gora egin ahala, igo egiten da belarripresten proportzioa, eta beraz, jaitsi ahobiziena.


1. grafikoa. Euskaraldian izena eman dutenak adinaren eta generoaren arabera (%). 2020-2022.



Iturria: Euskaraldia, 2020 eta 2022. Siadecok landua.


- Euskaraldiaren hiru edizioetako, 2018ko, 2020ko eta 2022ko izen-emateak alderatuz, ondorengo datuak nabarmentzen dira:
  - Lehen ediziotik bigarrenera, 2018tik 2020ra, belarriprest modura aritutakoetan izan zen, batez ere, jaitsiera: % 33,1ekoa, 20.194 izen-emate gutxiago. Rolen arteko desoreka areagotu zuen horrek: belarripresten pisua, 2018an %27,3 zena, 2020an, % 22,9 izatera pasa zen.
  - Bigarren ediziotik hirugarrenera, 2020tik 2022ra, gazteen izen-emateak egin du bereziki behera, % 25,5eko jaitsiera 16-29 urte artekoetan eta % 15,2koa 30-44 adin tartean. Beste muturra, 60 urtetik gorakoena da; 2020an baino izen-emate handiagoa izan duen adin-tarte bakarra da (% 4,5eko igoera).
  - Bigarren ediziotik hirugarrenera gertatu den beste jaitsiera esanguratsu bat gizonezkoena da: % 15,2 jaitsi da gizonezkoen izen-ematea (9.963 gizonezko gutxiago). Jaitsiera hori, zifra erlatiboetan, emakumezkoenaren (% 8,5eko jaitsiera) ia bikoitza da. Ondorioz, aurreko edizioetan ere bazegoen generoaren araberako desoreka, areagotu egin da 2022an; 2018tik 2022ra, gizonezkoen pisuak behera egin du bi puntu.
  - Gune soziolinguistikoari erreparaturik, galerarik handiena bigarren gune soziolinguistikoan gertatu da 2018tik 2020ra, 27.282 norbanako gutxiago (% 26,3ko jaitsiera) eta lehenengo gunean 2020tik 2022ra (% 22,2ko jaitsiera). Lehen ediziotik hirugarrenera norbanakoetan izandako galeraren (65.042 norbanako gutxiago) % 63,0, bigarren gune soziolinguistikoko herrietan gertatu da. Gainera, urbanizazio-mailaren arabera, hiriguneek galdu dute pisu gehien: % 25,5eko jaitsiera 2018tik 2020ra, eta % 16,2koa 2020tik 2022ra.

**2. grafikoa.** Norbanakoen izen-ematearen bilakaera, lurraldea eta rolaren arabera (2018, 2020 eta 2022).



Iturria: Euskaraldia. 2018, 2020 eta 2022. Siadecok landua.

**3. grafikoa.** Norbanakoen izen-ematearen bilakaera, lurraldea eta generoaren arabera (2018, 2020 eta 2022).



Iturria: Euskaraldia. 2018, 2020 eta 2022. Siadecok landua.

## 2) Karakterizazioa

### a. Hizkuntza-profilaren arabera.

- Euskaraldian parte hartu duten gehien-gehienak euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai dira (% 94,2). Rolen arabera azterketak erakusten du belarripresten % 8,2k zertxobait edo hitz batzuk besterik ez dituela ulertzen euskaraz. Zenbat eta gazteagoak izan eta zenbat eta inguru euskaldunagoan bizi, orduan eta euskara-maila handiagoa dute izena eman dutenek, eta orduan eta altuagoa da euskaraz errazago hitz egiten dutenen pisua.
- Belarripresten % 25,9k euskara du lehen hizkuntza. Iparraldean altua da frantsesa ez den beste bat lehen hizkuntza dutenen pisua (% 10,2). Askorena gaztelania dela interpreta daiteke. 60 urtetik gorakoen artean, 45-60ekoen artean baino altuagoa da euskara lehen hizkuntza dutenen pisua.
- Gaitasun erlatiboari dagokionez, euskaraz errazago egiten dutenen pisua EAEn da handiena (% 34,7), Nafarroan (% 25,2) ondoren eta Iparraldean (% 22,6) azkenik.

### 7. taula. Parte-hartzaileek zein hizkuntzatan egiten duten errazago (%)

		Zein hizkuntzatan egiten duzu errazago? (Euskaraz ongi/nahiko ongi hitz egiten dutenak soilik)			
		Euskaraz	Euskaraz eta erdaraz, bietan berdin	Erdaraz	Guztira
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>33,5</b>	<b>43,3</b>	<b>23,3</b>	<b>100,0</b>
EREMUA	EAE	34,7	42,9	22,3	100,0
	Iparraldea	22,6	52,3	25,2	100,0
	Nafarroa	25,2	44,3	30,6	100,0
ROLA	Ahobizi	37,3	44,1	18,7	100,0
	Belarriprest	13,4	38,9	47,7	100,0
GENEROA	Emakumea	34,7	40,3	25,0	100,0
	Gizona	31,4	48,8	19,9	100,0
ADINA	16-29 urte	46,0	40,6	13,3	100,0
	30-44 urte	35,9	40,6	23,4	100,0
	45-60 urte	27,2	45,2	27,6	100,0
	>60 urte	23,0	49,4	27,5	100,0
GUNE SOZIOLOGIKOA	Eusk <%20	9,2	47,3	43,5	100,0
	Eusk %20-%50	13,6	49,3	37,1	100,0
	Eusk %50-%80	47,0	41,9	11,2	100,0
	Eusk >%80	76,0	19,7	4,3	100,0

Iturria: Siadeco, 2023



## b. Rolaren arabera.

- Hizkuntza-jokabideak nagusitzen dira (% 60,2) rola hautatzeko arrazoien artean. Eremuaren arabera aldeak daude: Nafarroan (% 54,9) eta, batez ere, Iparraldean (% 65,2) hizkuntza-gaitasuna hizkuntza-jokabideen gainetik dago. Gune soziolinguistikoaren arabera, 1.ean bakarrik dago hizkuntza-gaitasuna (% 56,2) hizkuntza-jokabideen (% 49,8) gainetik.
- Rola aldatu dutenei dagokienez, gehiago dira ahobizi roletik belarriprest rolera aldatu direnak — izena eman dutenen % 6,0—. Horiek baino gehiago dira, hala ere, aurreko edizioan parte hartu ez zutenak: % 7,1. Nafarroan altuagoa da belarriprest rolera aldatu direnen pisua (% 6,5), eta Iparraldean aurreko edizioan parte hartu ez zutenena (% 9,2). Gune soziolinguistikoetako dagokienez, 2.ak ditu rola aldatu dutenen eta aurreko edizioan parte hartu ez dutenen proportziorik handienak. Belarripresten % 30,4 ahobizi izan zen aurrekoan, eta % 12,0k ez zuen aurreko edizioan parte hartu.
- Badirudi hizkuntza-gaitasunak pisu handia duela, oraindik, rola hautatzeari begira. Dena den, jasotako informazio kualitatiboak iradokitzen du belarriprest rola hautatu dutenek gehiago erreparatu diotela hizkuntza-jokabideari. Ahobiziek, berriz, neurri handiagoan azpimarratu dute euren gaitasuna edo euskara indartzeko edo sustatzeko gogoia.
- Jaso da, era berean, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenak beldurtu egiten direla ahobizi txapa daramatenen aurrean, eta konfiantza handiagoz aritzen direla belarriprest txapa daramatenekin. Horregatik hautatzen duela hainbatek.

*Amurrioko ikastolan ikasi nuen, ez naiz euskaldun zaharra, baina ikastolan igaro nituen urteek uste dut eman didatela erantzukizun hori. Ikusten nuen ikastolan ikasita behar nuela ahobizi izan, ez belarriprest. Neukala hor ardura bat*

[Araba, herri handiak \(hiriburua ez\), ahobizi, 45-60 urte\\_1](#)

*Nik aukeratu nuen ahobizi, normalean, klasean-eta, euskaraz hitz egiten dudalako. Eta ondo moldatzen naizelako. Eta horrela euskaraz hitz egin dezaket, besteek erdaraz erantzun arren*

[A3 taldea\\_Bizkaiko 20.000 biztanlez gorako herrietan 16-40 urte bitarteko ahobiziak eta belarriprestak\\_1](#)

*Jende askori kostatzen zaio, ahobizi txapa eramaten baduzu. Entzuteko prestutasun hori ikusgarriagoa da belarriprest txaparekin. Gero egia da, gure artean hizketan, batez ere lanean, kide batek esan zidala: "baina rolak ez dira horrela". Eta egia da, irakurri nuela rolen definizioa, eta egia da, ez daudela nik buruan dauzkadan bezala. Baina horrekin gelditu naiz eta belarriprest izatearekin gelditzen naiz, zeren aurrekoan belarriprest eraman nuen eta jendea askoz ere gehiago animatzen zen nirekin hitz egitera euskaraz*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako belarriprestak herri txiki euskaldunetan\\_2](#)

*Benetan eraginkorra izateko ariketa hau, benetan errespetatu beharko litzatekeela ahobizi rol hori, eta ez baldin baduzu bete behar, aukera hobea dela belarriprest-ena*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako belarriprestak herri txiki euskaldunetan\\_2](#)

*Euskaraz ahal bezainbat mintzatzen banaiz ere, eta ahal bezainbatekin, badakit kasu batzuetan (administrazioarekin etb) ez dudala aski kuraiarik euskaraz egiten tematzeko. Lehen Euskaraldian ahobizi rola hartu nuen eta biziki gaizki pasa nuen*

[Emakumea, 30-44 urte, Lapurdi, Eusk <%20, Belarriprest](#)

*Euskara bakarrik edo hurrekin (Ikastolan ziren) ikasi dut eta ez dut denekin hitz egiten, beraz belarriprest ontsa da enetako*

Gizona, 45-60 urte, Lapurdi, Eusk %20-%50, Belarriprest

*Lagun batek erran zidan nire maila aski ona zela*

Gizona, >60 urte, Lapurdi, Eusk %20-%50, Ahobizi

*Euskara sustengatzeko egunerokoan*

Emakumea, >60 urte, Behe-Nafarroa, Eusk %50-%80, Ahobizi

*Esaten zidaten rola gaizki aukeratu nuela: nik euskaraz banekiela eta nola belarriprest*

B1\_Nafarroako eremu euskalduneko belarriprestak\_1

*Egia esan ez dakit zergatik. Ondo hitz egiten dudanez-eta, esan nuen: bueno, ba ahobizi. Adibidez, nire amak ez dakienez ondo hitz egiten hartu zuen belarriprest, horregatik. Baina familiako besteok, euskaraz egiten dugunez...*

B2\_Iruñerriko gazteak\_1

*Normalean jartzen dut belarriprest zergatik batzuetan ataskatzen naiz asko, eta orduan lanean jartzen dut belarriprest eta listo. [...] Gai teknikoak direnean, batez ere*

Nafarroa; eremu mistoa; ahobizi/belarriprest dela esan du; 30-44 urte\_1

*Estaba apuntado como belarriprest, pero me apunté por sumar, yo es que no soy euskaldun*

Nafarroa; eremu ez-euskalduna; belarriprest; 45-60 urte\_1

*Ahobizi, bai. Eske gu gara euskaldunak beti, txikitatik egiten genuen euskara, gure lehenbiziko hizkuntza da euskara. Ahobizi ba hori, solasten dugulako euskaraz, gazteleraz izango zen belarriprest, ezta?*

Nafarroa; eremu euskalduna; ahobizi; 60tik gora\_1

*Ama-hizkuntza euskara ez dutenek baina dakitenek, belarriprest ikusi bezain laster identifikatzea niri euskaraz mintzatzea nahi dudala*


Belarriprest, Emakumea, 16-29 urte, Nafarroa, Eusk >%80

### 3) Parte hartzeko prozesua

#### a. Euskaraldiaren berri izateko modua

- Parte-hartzaileen % 85,2k 2018tik ezagutzen du Euskaraldia ariketa; gehiago dira ahobizien (% 87,1), 60 urtetik gorakoen (% 90,7) eta 4.gune soziolinguistikoan bizi direnen (% 91,5) artean.
- Hirugarren edizioan, gehiengoak emailaz jaso du ariketaren berri (% 79,4). Iparraldeko parte-hartzaileek gutxiago jaso dute informazioa kaleko komunikazioaren bidez (% 37,9), izena eman duen entitate baten bidez (% 28,3) eta telebistaren bidez (% 19,7). Kaleko komunikazioaren bidez zein sare sozialen bidez informazioa nabarmen gutxiago iritsi da belarriprestengana; eta emakumezkoek gizonetzkoek baino gehiago jaso dute ikastetxeen edo euskaltegien bidez. Dena den, aurreko edizioetan baino informazio gutxiago izan dutela diote parte-hartzaileek; besteak beste, kasu batzuetan ez dute jakin txapak non jaso.

#### 4. grafikoa. Euskaraldiko parte-hartzaileei zein modutara iritsi zaien Euskaraldiaren inguruko informazioa (%)



Iturria: Siadeco, 2023.

## b. Arrazoiak

- Euskararen erabilera handitzea izan dute helburu parte-hartzaile gehienek (% 60,5); gertu dago, hala ere, euskararen aldekotasuna erakustea (% 52,0). Iparraldean eta euskaldunen ehunekoa altuagoa den neurrian, garrantzia gehiago dauka euskararen aldekotasuna erakustea; gutxiago, aldiz, belarripresten eta gizonezkoen artean. Bestelako helburuak ere badituzte: norberaren hizkuntza-ohiturak aldatzea eta euren burua euskaldun gisa identifikatzea, euskararen sareari ikusgarritasuna ematea edo zenbait esparrutan ariketa egitea, besteak beste.
- Euskaraldiko parte-hartzaile ia guztiek kalean euskara gehiago entzun nahi dute (% 96,5), eta hamarretik zazpi aktiboak dira euskararen inguruko ekimenetan –gehiago Iparraldeko eta inguru euskaldunetako parte-hartzaileen artean–. Belarriprestengan ahobiziengan baino gehiago eragin du euskaltegian euskara ikasten aritzeak; eta 30 eta 60 urte bitartekoengan, aldiz, guraso izateak.

8. taula. Parte-hartzaileentzat zein izan den Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia (%)

		Euskara gehiago erabiltzea	Nire inguruko euskaldunak zein diren jakitea	Euskara erabiltzeko eremu berriak ezagutzea	Euskararen alde nagoela erakustea	Ez dakit/ Erantzunik ez
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>60,5</b>	<b>13,6</b>	<b>23,5</b>	<b>52,0</b>	<b>1,4</b>
EREMUA	EAE	59,3	12,6	22,9	52,1	1,4
	Iparraldea	67,3	27,0	31,5	71,0	0,8
	Nafarroa	68,7	18,9	26,7	46,9	1,6
ROLA	Ahobizi	58,9	13,9	24,6	54,9	1,6
	Belarriprest	66,9	12,4	19,2	40,4	0,6
GENEROA	Emakumea	59,9	13,1	25,1	54,0	0,7
	Gizona	61,5	14,5	20,9	48,7	2,6
ADINA	16-29 urte	60,2	20,6	29,5	63,4	2,6
	30-44 urte	60,3	12,5	26,1	52,5	2,0
	45-60 urte	60,4	11,8	20,3	46,6	0,6
	>60 urte	61,6	10,7	16,4	47,9	0,4
GUNE SOZIOLINGUISTIKOA	Eusk <%20	74,6	23,0	30,8	47,7	0,7
	Eusk %20-%50	67,1	15,5	24,1	50,8	1,9
	Eusk %50-%80	56,3	10,7	21,2	51,8	1,2
	Eusk >%80	38,2	12,4	27,8	62,5	0,7

Iturria: Siadeco, 2023

### c. Motibazioa

- Euskaraldiko parte-hartzaileen gogo-aldarteari dagokionez, Euskaraldia hasi aurretik eta bukatu den arte joera argia izan da: konbentzituta zeudenek behera egin dute (% 68,2tik % 52,0ra), eta zalantzatiek, aldiz, gora (% 25,2tik % 35,3ra). Ahobiziak eta emakumezkoak konbentzituago azaldu dira; Iparraldekoek, aldiz, zalantzatiago hasi dute ariketa.
- Inguruko motibazio-mailak ere joera berbera erakusten du: motibatuago ikusi dituzte ariketaren aurretik, ondoren baino. Ahobiziek, inguru euskaldunetakoek eta emakumezkoek motibatuago sumatu dituzte ingurukoak. Gazteek nabarmen gehiago aipatu dute haien ingurukoei ez zaiela axola ariketa.
- Oro har, Euskaraldiaren aurretik zein bitartean aurreko edizioetan baino giro epelagoa izan dela aitortu dute parte-hartzaileek. Batzuen ustez, berritasuna galdu du eta konpromiso gehiagorekin ekin beharko litzaioke ariketari.

9. taula. Parte-hartzaileen gogo-aldarte Euskaraldiaren aurretik, bitartean eta ondoren (%)

		Konbentzituta nago. Nire esku dagoen guztia gingo dut nire edota nire ingurukoek erabilera-ohiturak aldatzeko			Zalantzatia naiz. Zaila izango da Euskaraldiari esker nire erabilera-ohiturak aldatzea			Ezkorra naiz. Ez dut nire erabilera- ohituretan eragiteko ahalegin handirik egiteko asmorik			Ed/Ee		
		Aurretik	Bitartean	Ondoren	Aurretik	Bitartean	Ondoren	Aurretik	Bitartean	Ondoren	Aurretik	Bitartean	Ondoren
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>68,2</b>	<b>65,6</b>	<b>52,0</b>	<b>25,2</b>	<b>29,6</b>	<b>35,3</b>	<b>2,2</b>	<b>4,1</b>	<b>3,2</b>	<b>5,2</b>	<b>3,4</b>	<b>5,6</b>
EREMUA	EAE	68,4	66,0	52,0	24,8	29,3	35,1	2,3	4,2	3,2	5,3	3,4	5,8
	Iparraldea	65,0	65,6	51,7	33,1	28,4	33,8	0,0	2,6	1,9	3,8	4,0	7,3
	Nafarroa	67,2	62,4	51,5	27,2	32,0	36,8	2,1	3,5	3,2	4,8	2,9	4,1
ROLA	Ahobizi	71,9	69,6	56,2	22,1	26,5	32,3	1,5	3,3	1,9	5,2	3,0	5,8
	Belarriprest	52,9	49,5	34,9	38,1	42,1	47,2	5,2	7,6	8,4	5,2	5,0	4,9
GENEROA	Emakumea	72,4	69,1	56,3	22,1	27,8	31,4	1,6	3,0	2,7	4,7	3,2	5,6
	Gizona	60,7	59,4	44,3	31,0	32,7	42,9	3,3	6,3	4,1	6,0	3,5	5,6
ADINA	16-29 urte	64,0	62,3	53,4	27,6	34,1	40,4	2,5	6,5	1,6	4,8	1,6	3,2
	30-44 urte	69,6	66,7	55,3	22,8	29,8	32,1	2,2	3,6	3,2	4,6	3,0	5,9
	45-60 urte	67,4	64,2	48,4	27,5	29,9	36,4	2,2	3,8	3,0	6,0	4,1	6,6
	>60 urte	72,7	71,6	50,7	22,1	21,6	32,8	2,3	2,9	6,0	4,8	4,7	6,1
GUNE SOZIOLINGUISTIKOA	Eusk <%20	61,1	53,2	43,3	33,1	39,2	43,0	1,8	4,9	4,4	5,8	3,5	5,1
	Eusk %20-%50	62,7	59,6	46,5	30,8	34,4	40,4	3,1	5,6	4,9	6,8	4,2	5,1
	Eusk %50-%80	73,2	70,9	56,7	20,1	25,1	30,9	1,1	3,1	1,9	3,9	2,4	6,2
	Eusk >%80	79,4	79,7	62,6	15,2	19,8	25,0	2,8	1,9	0,5	3,3	4,2	5,9

Iturria: Siadeco, 2023

#### 4) Ariketako jarduna.

##### a. Jarritako helburuak

- Ikastetxean edo euskaltegian beti edo ia beti euskaraz egitea da Euskaraldiko parte-hartzaileen artean gehien nabarmentzen den helburua (% 62,5), eta seme-alabekin beti edo ia beti euskaraz hitz egitea, ondoren (% 60,7).
- Azpimarratzeko modukoa da bikotekidearekin (% 25,1) eta familiartean (% 23,8) helbururik jarri ez dutenen pisua.
- Badirudi, Euskaraldiaren aurretik, jarritako helburuekiko ezkorragoak zirela parte-hartzaileak, gertuko harremanekin lotuta: seme-alabak, bikotekidea, lagunak... Baikorragoak, aldiz, lan-esparruarekin edo eremu formalagoekin lotuta.

10. taula. Parte hartu dutenek jarritako helburuak (%)


	Beti edo ia beti euskaraz egitea	Euskara gehiago erabiltzea	Lehen hitza euskaraz egitea	Elkarrizketa elebidunetan euskarari eustea	Orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea	Euskaraz dakienari euskaraz egin diezadan eskatzea	Ez dut helbururik jarri	Guztira
Bikotekidearekin	31,1	29,6	5,0	3,1	2,7	3,5	25,1	100,0
Seme-alabekin	60,7	16,3	2,6	1,6	0,6	1,1	17,1	100,0
Familiartean	34,1	25,9	5,0	3,7	2,5	4,9	23,8	100,0
Lagunartean	32,4	33,4	5,5	4,1	2,8	5,4	16,4	100,0
Lanean	37,5	30,8	6,6	3,8	2,9	5,0	13,5	100,0
Herriko dendetan	29,5	30,0	19,8	3,4	1,9	4,5	10,9	100,0
Ikastetxean edo euskaltegian	62,5	12,6	4,1	1,9	1,0	2,8	15,1	100,0
Nire aisialdiko taldeko kideekin	30,6	34,7	9,6	3,9	2,4	3,7	15,2	100,0
Ezezagunekin edo kalean	19,2	30,1	31,2	2,9	1,8	3,6	11,3	100,0
Bestelako bilera, egoera eta harreman formaletan	21,9	34,9	16,8	5,1	2,4	3,3	15,6	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

## b. Txaparen erabilera eta erabilgarritasuna

- Ahobiziek belarriprestek baino gehiago jarri dute txapa, eta emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago. Zenbat eta adinduagoak izan parte-hartzaileak, orduan eta altuagoa da txapa beti edo askotan jarri dutenen pisua.
- Galdetuz txapa zertarako izan zaien erabilgarri, “euskararen alde nagoela adierazteko” (% 97,3) da arrazoi nagusia, eta “Euskaraldian parte hartzen ari naizela erakustea” (% 96,3) hurrengoa. “Hizkuntza-ohiturak aldatzeko” aukera Nafarroan, belarripresten artean, adinekoen artean eta 1.gune soziolinguistikoa nabarmendu da gehien.
- Txaparen erabilera praktikoaren inguruko iritzi kualitatibo gutxi jaso dira, hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketaren ikuspuntutik. Oro har, txapa jasotzeko tokiaren eta moduaren inguruko ezezagutza edo informazio-falta nabarmentzen da jasotako informazio kualitatiboan, eta kalean txapa gutxi ikusi direla ere jaso da.

5. grafikoa. Parte-hartzaileei txapa zertarako izan zaien erabilgarri (%)



Iturria: Siadeco, 2023.

**c. Ariguneei buruz.**

- Ahobizien artean eta 4.gune soziolinguistikoan, ariguneetan parte hartu dutenen pisua handiagoa da arigune-mota guztietan.
- Lantokiko arigunean parte hartzea izan da ohikoena: % 34,2k lantokiko arigune batean parte hartu du. Emakumeen artean nabarmentzekoa da guraso elkarrearteko ariguneetan parte hartu dutenen pisua (% 10,1). Lantokiko ariguneetan parte hartu dutenena ere gizonen artean baino altuagoa da (% 34,9). 30-44 urtekoen pisua nabarmentzen da, bai lantokietan (% 39,3), baita guraso elkarreartean (% 12,2) ere.
- Gehiago dira taldean bakarka baino erosoago aritu direnak (% 18,1), alderantzizkoa adierazi dutenak baino (% 5,1). Gazteen artean altuagoa da taldean bakarka baino erosoago sentitu direnen pisua (% 27,0).
- Zenbat eta gazteagoak izan parte-hartzaileak, eta zenbat eta inguru euskaldunagoan bizi, orduan eta altuagoa da ariguneei ikusi dituztenen pisua.

**11. taula.** Zer-nolako esperientzia izan den arigunean parte hartzea (%)

		Zer-nolako esperientzia izan da?							
		Bakarka baino erosoago aritu naiz	Bakarka bezain eroso aritu naiz taldean ere	Bakarka erosoago aritu naiz taldean baino	Ez naiz eroso aritu ez bakarka, ezta taldean ere	Beti bezain eroso sentitu naiz. Ez da ezer aldatu	Ez dakit	Guztira	
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>18,1</b>	<b>42,0</b>	<b>5,1</b>	<b>1,5</b>	<b>24,1</b>	<b>9,3</b>	<b>100,0</b>	
EREMUA	EAE	18,0	42,8	4,7	1,5	24,1	8,8	100,0	
	Iparraldea	24,8	25,9	7,8	1,3	25,2	15,0	100,0	
	Nafarroa	16,8	38,7	7,9	1,7	23,1	11,8	100,0	
ROLA	Ahobizi	19,2	44,7	4,5	,5	22,5	8,6	100,0	
	Belarriprest	12,7	29,7	7,9	6,0	31,2	12,5	100,0	
GENEROA	Emakumea	17,2	40,9	4,2	1,3	25,9	10,4	100,0	
	Gizona	19,4	44,2	6,9	1,9	20,2	7,4	100,0	
ADINA	16-29 urte	27,0	41,0	2,9	0,0	22,5	6,6	100,0	
	30-44 urte	15,8	43,9	3,4	3,0	23,5	10,5	100,0	
	45-60 urte	17,1	41,1	6,4	,9	24,2	10,2	100,0	
	>60 urte	12,4	40,2	10,8	1,3	28,3	7,1	100,0	
GUNE SOZIOLINGUISTIKOA	Eusk <%20	15,0	36,2	10,7	2,9	21,9	13,3	100,0	
	Eusk %20-%50	17,6	39,4	5,8	1,7	24,7	10,7	100,0	
	Eusk %50-%80	19,3	43,9	4,5	1,6	22,4	8,3	100,0	
	Eusk >%80	17,6	46,1	0,0	0,0	30,4	5,9	100,0	

Iturria: Siadeco, 2023




## 5) Euskaraldiaren eragina.

### a. Hartutako jokabideak

- Euskaraz ulertzen zutenekin euskaraz egiteko ohitura zuen, Euskaraldiaren aurretik, parte-hartzaileen ia bi herenek.
- Elkarrizketa elebidunetan euskarari eusteko jokabideari bultzada eman dio Euskaraldiak: % 44,6k hartzen zuen aurretik eta % 76,6k ondoren. Jokabide horri dagokionez, Iparraldean (% 37,4tik % 77,3ra), belarripresten artean (% 28tik % 62,5era) eta adinekoen artean (% 47tik % 83,9ra) lortu da bilakaerarik handiena.
- Lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, EAEn (% 57,2tik % 77,7ra), belarripresten artean (% 35,1etik % 56,6ra), gazteenen artean (% 51,5etik % 78,8ra) eta 3.gune soziolinguistikokoan (% 65,2tik % 87,4ra) lortu dira urratsik handienak.

6. grafikoa. Parte-hartzaileek hartutako hizkuntza-jokabideak Euskaraldiaren aurretik, bitartean eta ondoren (%)




Iturria: Siadeco, 2023.

**b. Hizkuntza-erabileraren bilakaera eta zailtasun-maila.**

- Jokabide zailena izan da orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea; bai ariketan zehar (% 59,9), baita ondoren ere (% 62,4). Baina lehen baino errazagoa iruditu zaie, Euskaraldiaren ondoren, 60 urtetik gorakoei eta 1. eta 2.gune soziolinguistikoetakoiei. Euskaraz dakienari euskaraz egiteko eskatzeari dagokionez, emakumezkoiei eta belarriprestei iruditu zaie errazagoa, Euskaraldiaren ondoren.
- Euskaraldiaren aurretik eta ondoren zegoen egoera kontuan izanda, euskararen erabileran aurrerapausoa handiagoa da parte-hartzaileek eguneroko harremanetan izan duten hartu-emanen ezezagunak tartean dauden egoeretan baino.
- Aurrerapauso egonkorrenak lanean (5,3 puntuko igoera hasieratik ondorenera) eta seme-alabekin (4,1 puntuko igoera hasieratik ondorenera) lortu dira. Belarriprestek igoera esanguratsuak lortu dituzte (bederatzina puntukoak), seme-alabekin eta ikastetxean edo euskaltegian. Azpimarratzeko modukoak dira gazteenek lagunartean edo koadrillan (8,4 puntu) edo lanean (8 puntu) lortu dituzten aurrerapausoak.
- la egoera guztietan, ingurua zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta gehiago egiten zen euskaraz Euskaraldiaren aurretik, eta gehiago egin da ondorenean ere; baina aldaketa handiagoa izan da inguru erdaldunagoetan.
- Seme-alabekiko harremanean eta ikaskideekin izan da errazena rola betetzea: % 90entzat baino gehiagorentzat erraza edo oso erraza. Ahobizientzat errazagoa izan da seme-alabekiko harremanetan betetzea rola (% 96,0); belarriprestentzat, aldiz, ikaskideekin (% 95,0).
- Zailena, aldiz, kaleko eremuan izan da: zerbitzu pribatuetan edo ezezagunekin, % 40rentzat baino gehiagorentzat zaila edo oso zaila. Kaleko eremuan (zerbitzu pribatuetan eta ezezagunekin edo kalean) zailtasun handiagoak dituzte belarriprestek, 60 urtetik gorakoek eta inguru erdaldunetan bizi direnek.

**7. grafikoa.** Zenbateraino izaten ari den erraza edo zaila ahozki edo belarriprest izatea ondorengoekin (dagozkienak soilik) (%)



Iturria: Siadeco, 2023.

### c. Hizkuntza-ohituren aldaketa

- % 17,1ek aldatu ditu hizkuntza-ohiturak argi eta garbi edo oro har. Horien pisua ahobizien artean (% 18,4), emakumezkoen artean (% 18,5), gazteenen artean (% 20,9) eta 3-4.gune soziolinguistikoetan nabarmentzen da. Edonola ere, aintzat hartu behar da batzuek adierazi dutela aldaketa gutxi sumatu dutela beraien egunerokoan, lehendik ere, euskara txertatua dagoelako euren bizitzan.
- Parte-hartzaileen ia erdiek ohitura batzuk aldatu dituzte, eta beste batzuk ez (% 47,4). Ehuneko hori altuagoa da Nafarroan (% 52,9), belarripresten artean (% 53,0), eta 1.gune soziolinguistikoan (% 54,1).
- Parte-hartzaileen herenak ez ditu aldatu, oro har edo inolaz ere ez. Horien pisua Iparraldean (% 36,4), gizonezkoen artean (% 40,1), 60 urtetik gorakoen artean (% 39,9) eta 2.gune soziolinguistikoan (% 35,7) nabarmentzen da.

12. taula. Parte-hartzaileek aurtengo Euskaraldiari esker hizkuntza-ohiturak aldatu dituzten edo ez (%)

		Argi eta garbi	Oro har, bai	Batzuk bai; beste batzuk, aldiz, ez	Oro har, ez	Inolaz ere ez	Ez dakit	Guztira
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>3,8</b>	<b>13,3</b>	<b>47,4</b>	<b>27,7</b>	<b>5,9</b>	<b>1,9</b>	<b>100,0</b>
EREMUA	EAE	3,8	13,4	46,8	27,6	6,3	2,0	100,0
	Iparraldea	3,6	12,4	44,9	29,9	6,5	2,7	100,0
	Nafarroa	3,8	12,1	52,9	28,2	2,0	0,9	100,0
ROLA	Ahobizi	4,0	14,4	46,1	27,6	6,2	1,7	100,0
	Belarriprest	2,7	8,6	53,0	28,4	4,8	2,6	100,0
GENEROA	Emakumea	4,2	14,3	49,3	24,8	5,1	2,2	100,0
	Gizona	2,9	11,7	44,0	32,8	7,3	1,3	100,0
ADINA	16-29 urte	4,0	16,9	51,5	21,6	4,2	1,8	100,0
	30-44 urte	4,2	11,7	49,3	25,4	7,6	1,9	100,0
	45-60 urte	3,1	12,9	46,3	32,0	4,2	1,5	100,0
	>60 urte	4,2	13,0	39,7	31,7	8,2	3,1	100,0
GUNE SOZIOLOGIKOA	Eusk <%20	1,5	11,5	54,1	30,8	1,7	0,3	100,0
	Eusk %20-%50	2,9	12,4	47,9	29,5	6,2	1,0	100,0
	Eusk %50-%80	4,3	14,9	47,3	24,4	6,1	3,1	100,0
	Eusk >%80	7,6	11,0	40,7	31,7	7,1	1,9	100,0


Iturria: Siadeco, 2023.

## 6) Aurrera begira

### a. Aldaketari utsiko zaion

- Ezezagunekiko edo kaleko harremanak dira, Euskaraldian aldatu eta aurrera begira mantentzeko aukera handiena dutenak (% 60,3), parte-hartzaileek adierazitakoaren arabera. Familiartea dago beste aldean: % 45,9k adierazi du aurrera begira hizkuntza-ohiturak mantenduko dituela.
- Euskara menderatzen ez dutenekin edo euskaraz ez dakitenen aurrean hizkuntzari eustearen zailtasunak nabarmentzen dira teknika kualitatiboen bidez jasotako lekukotasunetan.

8. grafikoa. Aurrera begira aldatetari utsiko zaion edo ez (%) (hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenei bakarrik)



Iturria: Siadeco, 2023

## b. Hurrengo edizioan, zer?

- Ahobizien artean (% 76,3) eta emakumezkoen artean (% 75,3) altuagoa da zalantzarik gabe parte hartuko dutenen proportzioa.
- Tarteko adinetan (30-60 urte) altuagoa da hurrengo edizioan zalantzarik gabe parte hartuko dutenen pisua. Tarteko gune soziolinguistikoetan (2.ean eta 3.ean), aldiz, txikiagoa.
- Teknika kualitatiboetan parte hartu dutenen gehiengoak hurrengo edizio batean parte hartzeko prestutasuna adierazi badu ere, Euskaraldiak aldaketa baten beharra duela aldarrikatu du hainbatek, ez baitio eutsi hasierako indarrari. Inertziaz parte hartuko dute askok, euskararen aldeko beste zenbait ekimenetan parte hartzen duten bezala. Baina ez ilusio handiz.

*Niri oso jarduera ederra eta originala iruditzen zait, ez dakit hau munduan inon egiten den baina sekulako ideia iruditzen zait eta ea asko garen eta ea nabaritzen den kalean*

[A2.Eztabaida-taldea. Arabako herri txiki erdaldunetako ahobiziak\\_1](#)

*Uste dut oso garrantzitsua dela eta polita dela. Zeren helburuak lortzen dira. Helburu guztiak ez baina batzuk bai*

[A3 taldea\\_Bizkaiko 20.000 biztanlez gorako herrietan 16-40 urte bitarteko ahobiziak eta belarriprestak\\_1](#)

*Sí, sin ninguna duda. Porque creo que es importante que gente como yo que estamos aprendiendo veamos que podemos tener una red alrededor, un apoyo de la gente que lo habla y que nos pueda ayudar eso a hacer que se use. Sobre todo aquí, donde vivimos*

[Nafarroa; eremu ez-euskalduna; belarriprest; 16-29 urte\\_3](#)

*Bai. Uste dudalako horrela jende gehiago ezagutu dezakedala euskaraz mintzatzen dena. Eta beraiek niri, baita ere, hitz egin ahal didatela euskaraz*

[Nafarroa; eremu euskalduna; ahobizi; 16-29 urte\\_3](#)

*Sí que me gustaría ser capaz de quitar la barrera de la vergüenza y el miedo a equivocarme y seguir utilizándolo más. [...] Yo voy a clase, yo no necesito el título, realmente yo lo hago porque quiero utilizarlo porque me gusta mucho. Pero sí es cierto que con la campaña es como que me incentivó más a tener más ilusión y más ganas de hacerlo*

[Nafarroa; eremu ez-euskalduna; belarriprest; 16-29 urte\\_3](#)

*Nik uste dut baietz, beharrezkoa dela. Gauza dela erronka egokiak paratzea. Baina helburu aunitz lortzen ahal direla*

[B1\\_Nafarroako eremu euskalduneko belarriprestak\\_3](#)

*Agian ez nire inguruan, baina beste batzuetan beharrezkoa da Euskaraldia*

[B1\\_Nafarroako eremu euskalduneko belarriprestak\\_3](#)

*Niretzako garrantzitsua iruditzen zaidalako, baina nire ingurukoek esfortzurik egiten ez badute, bai jarraituko dudala egiten, baina zailagoa egiten da*

[B2\\_Iruñerriko gazteak\\_2](#)

*Hori gehiago da euskaldun berrientzako edo ari direnak ikasten-edo, eske gure hizkuntza izan da beti euskera, ez gara euskaldun berriak*

[Nafarroa; eremu euskalduna; ahobizi; 60tik gora\\_3](#)

*Niri iruditzen zait nire ingurua nahiko markatua dagoela. Baina urte guztian euskararen alde ari direnak, orain Euskaraldiarekin bat datoz "tope" (...) Beraien gogoia eta parte-hartzea nabari da. Baina betikoak dira, ez dut ikusten beste deus*

[B1\\_Nafarroako eremu euskalduneko belarriprestak\\_3](#)

*Behar dira kanpainak, hori dudarik gabe. Momentu azkarrak dira. Baina gero, hilabete baten buruan... Ikusi ditut jende batzuk indar egin dutenak, baina gero ez dute gehiago egin (...) Euskaraldiak hamabost egun, gero hilabete bat, baina behar da gehiago. Galtzen dira hartu ohitura berriak*

[Nafarroa Beherea, ahobizi, 40tik gora](#)

*Euskararen alde diren abertzale edo euskaltzaleetan ere, aintz gero eta gehiago abertzale funtzionario bilakatzen ari dira. Beraz, militantismoa txikitzen ari da. Eta horrek nau kezkatzen. Behar dugu militante izaten segitu, baina zorigaitzez militanteak gero eta gutxiago dira. Eta jende bera gara gauzen bultzatzeko, akuilatzeko... segitzen dugu, hala ere*

*Militanteen esku da lana. Nik horretan sinisten dut. Botere publikoek bai, behar dute zerbait egin, baina militante azkarrak behar dituzte saihetsean ukan. Militanteen gain da euskararen geroa enetzat. Botere publikoengan uzten badugu bakarrik, galduak gara*

[Nafarroa Beherea, ahobizi, 40tik gora](#)

*Aldaketa bat behar du Euskaraldiak. Hirugarren edizioan "desidia" moduko bat antzeman da. Hasierako indarra galdu du*

[B1\\_Nafarroako eremu euskalduneko belarriprestak\\_3](#)

*Behar da, nik uste dut, jendearengana beste nolabait iritsi. Iruditzen zait zeozer aldatu beharra daukala. Euskaraldia edo agortu dela edo beste birasmaketaren bat -edo behar duela*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)

*Aurtengo Euskaldiatik ezkor agertzen naiz, ez zait irudi euskarari bultzada emaiten duen. Artifiziala dela iruditzen zait, jadanik beti euskaraz hitz egiten dugunok gira euskaraz ari. Populazio zabala ez da ere oharu ekimen horretaz*

[Emakumea, 45-60 urte, Lapurdi, Eusk %20-%50, Ahobizi](#)

*Euskaraldi honetan ez dut bizi izan motibazio eta ardura handitu dela nere partetik eta besteen partetik. Lehen aldiko ilusioa joan egin zait eta konturatu naiz ardura eta konpromisu gehiagorekin hartu behar dudana ariketa bat dela eragin positiboa edukitzeko*

[Emakumea, 30-44 urte, Lapurdi, Eusk %20-%50, Ahobizi](#)

*Niri gustatzen zitzaidana Euskaralditik da rolak puskatze hori, hasiera batean behintzat zeukana. Ni euskalduna izan arren eta euskal hiztuna eta nire bizitzaren % 99 euskaraz izan arren ere, badauzkat jarrera batzuk non ahalko nukeen euskara gehiago egin edo ez dudana erabiltzen, testuinguru horietan. Iruditzen zait hori gertatzen dela eta horrekin puskatzea eta ohitura horiek aldatzea oso estrategia ona iruditzen zait. Baina iruditzen zait demostratu dela urtean behingo Euskaraldiarekin, behintzat, ez dela nahikoa, eta beste zeozer behar dela*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)

*Instituzioek asko sustatzen duten gauza bat dela, baina gero, herri mailan, ez dut ikusten*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)

*Amorru handia ematen dit, aurreko edizioetan, administrazioko langileen beraien mahaitxoetan izaten dituzten ahobizi kartelak, etab. Eta gero beraien artean entzuten zenituen eta ez zuten euskaraz egiten. Egia da, euskaraz eginez gero, ez zizutela trabarik jartzen, baina gero, beraien artean ez zuten ahobizi papera betetzen*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)

*Motibazioa kendu ere egiten du. Zeren, azkenean, hautu bat da hartu behar dena, eta ikusten duzu jendeak ez duela serio hartzen, eta niri, egia esan, horrek atzera bota arazi dit. Eta aurten ez neukan halako ilusiorik, ez da lehenengo edizioan neukan ilusio hori, parte hartzekoa pentsatuz zeozer aldatu behar genuela. Ez dakit zenbateraino eraginkorra den jendearen ohiturak aldatzeko*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)

*Nik esango dut Euskaraldiak funtzionatu dezakeela (...) Baina iruditzen zait beste lanketa batzuk hartu behar dituela, baita ere. Edukiz landu, edo beste era batera jorratu. Eta zeozer eman, ez bakarrik eskatu jendeari: egin ezazu esfortzua*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)

*Ni pesimista naiz gai honekin, eta iruditzen zait Euskaraldia iristen dela lehendik euskaltzale zenarengana. Baina ez dela iristen euskararekiko atxikimendurik ez daukanarengana. Eta iruditzen zait azkeneko hamarkadetan zehar egin dela lanketa oso handi bat euskararen alde eta beharra sortu dela, baina behar hori izan da beti administrazioan postuak lortzeko, lana lortzeko, derrigortasun hori. Eta horrek euskara asko sustatu duela, baina iritsi dela bere mugara, ez duela gehiago ematen. Eta gainera horrek sustatzen duela ezagutza, baina ez gero benetako erabilera. Eta hori datuek erakusten dute.*

*Eta iruditzen zait horren arrazoietako bat ahal dela izan ez dela nahikoa beharra sortzea edo saritzea. Esate baterako, postu hobeak lortzea ahalbidetzea eta horrelako gauzak. Euskarak aurrera egiteko lotu beharra dagoela sentimenduekin. Jendeak sentitu beharra daukala euskara berea eta euskaltzale bihurtu behar dela jendea. Zeren bestela ez da erabilera haziko eta euskarak etorkizun eskasa dauka*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)

*Nik uste dut berritasun puntu bat behar duela. Txaparena oso ondo dago, ze adierazten du. Baina zerbait berria, erakargarria, bai umeentzat, bai helduentzat... ez dakit nola, hori egia da. [...] Eske hasierakoa izan zen zoragarria*

[A2.Eztabaida-taldea. Arabako herri txiki erdaldunetako ahobiziak\\_3](#)

*Nik ere parte hartuko dut, baina parte hartuko dut honetan, eta okurritzen baldin bazaie beste zeozer, baita ere, euskararen alde egiten den denean, nire esku dagoen heinean, saiatuko naizelako parte hartzen. Ez benetan ilusionatzen nauen proiektu bat delako*

[A1 taldea\\_Gipuzkoako herri txiki euskaldunetako belarriprestak\\_3](#)



## 3.2. Entitateak

### 1) Izen-emateaz

- 2022ko edizioan parte hartu duten entitateak, Euskal Herrian denera, 8.610 izan dira. 2020koa baino altuagoa da kopuru hori; 8.309 izan ziren 2020an, beraz 301 entitate gehiagotara zabaldu da Euskaraldiko ekimena oraingoan, % 3,6ko igoera. Ia erdiak Gipuzkoakoak dira (% 47,4), hirutik bat Bizkaikoak (% 32,2), Nafarroakoak 10etik 1 (% 9,2), Arabakoak % 6,5 eta Iparraldekoak, gainerako % 4,7a.
- 2020ko datuekin alderatuz, kopuru absolutuetan, 2022an entitate gehien irabazitako bost eskualdeak dira, Donostialdea (176 gehiago), Gernika-Bermeo (112 gehiago), Arabako Lautada (66 gehiago), Tolosaldea (59 gehiago) eta Baztan-Bidasoa (55 gehiago). Jaitsiera handiena izandakoak berriz, Goierri (97 gutxiago), Durangaldea (90 gutxiago) eta Bilbo Handia (31 gutxiago).
- Euskaldunenak diren gune soziolinguistikoetan, proportzionalki handiagoa da entitateen Euskaraldiko izen-ematea; 10 entitatetik 5 baino gehiago (% 56,8), hirugarren edo laugarren gune soziolinguistikoan kokatzen diren udalerrietakoak dira.
- Jardueraren arabera, entitateen bi multzo nagusienak dira, merkataritzako saltoki txikiak eta zerbitzu pertsonalak zein profesionalak eskaintzen dituzten establezimendu txikiak (% 24,2) eta hezkuntzaren alorreko ikastetxeak (% 13,3). Jarraian, kultur erakundeak (% 8,8), finantza eta aseguru konpainiak (% 7,9), administrazio publikoko erakundeak (% 7,6) eta ostalaritzako establezimenduak (% 7,4). Industria sektoreko lantegien pisua, % 2,8koa izan da. Gainerakoen multzoa, jarduera ezberdin askoko entitateei dagokiena da: osasuna, kirola, hedabideak, garraioak, gizarte-mugimenduetako elkarteak eta abar.
- Merkataritzaren eta zerbitzu profesionalen pisua azpimarra daiteke 3. eta 4.gune soziolinguistikoetan (% 32,6 eta % 22,0, hurrenez hurren) eta hezkuntza zentroena (% 17,9) bigarren gunean.

13. taula. Euskaraldian izena eman duten entitateen jardura, lurraldearen arabera (2022) (%)

Entitate-mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	IPARRALDEA	NAFARROA	GUZTIRA
Merkataritza eta zerbitzu profesionalak (abokatuak, iturginak, gimnasioak, telefonía, estetika zentroak...)	14,5	20,0	30,6	25,4	8,1	13,9		9,9	20,8	24,2
Hezkuntza	17,5	15,2	10,5	12,8	22,4	5,8	11,1	16,5	16,2	13,3
Bestelakoak	7,9	10,6	9,9	10,0	15,4	12,4	22,2	14,6	12,5	10,5
Kultura	8,8	11,6	6,6	8,6	10,8	11,7		10,9	9,3	8,8
Finantza eta aseguruak	8,9	8,8	8,0	8,4	5,4	2,2	11,1	4,4	5,5	7,9
Herri administrazioa	22,1	7,4	3,7	6,4	15,1	32,8	33,3	21,5	11,4	7,6
Ostalaritza	3,0	6,2	9,0	7,5	3,5	4,4		3,7	8,1	7,4
Gizarte mugimendua	5,7	6,3	5,1	5,6	6,9	2,2	11,1	5,4	5,8	5,6
Osasuna	4,3	5,7	5,9	5,7	5,0	10,2		6,7	4,4	5,6
Kirola	4,3	5,4	4,9	5,0	1,9	1,5		1,7	3,4	4,7
Industria	1,6	1,3	4,3	3,0	3,1	1,5		2,5	1,3	2,8
Hedabidea	0,4	0,6	0,7	0,6	1,5	1,5	11,1	1,7	1,0	0,7
Garraioa	0,4	0,4	0,5	0,5	0,4			0,2	0,1	0,4
Energia	0,4	0,1	0,3	0,2	0,4			0,2	0,1	0,2
Zehaztu gabe	0,4	0,3	0,2	0,2	8,1	13,9		9,9	0,1	0,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Euskaraldia, 2022. Siadecok landua.

## 2) Entitateetako partaideen euskara-maila

- Batez beste, Euskaraldian izena emandako Euskal Herri osoko entitateetan, bertako langile edo partaideen % 77,7 euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai da. Ekimenean parte hartu duten entitateetan, altua da langile euskaldunen pisua; EAEn eta Nafarroan, batez beste, entitateetako kideen % 78 da euskalduna, Iparraldean % 63 inguru.
- Sektoreka, hezkuntzakoetan dago euskara-mailarik altuena (% 86,4) eta sektore pribatuan baxuagoa da ezagutza maila: % 72,1 zerbitzuetan eta % 70,6 industria sektoreko lantegietan. Eremu euskaldunenetako entitate euskaldunenek gehiago parte hartzen dute Euskaraldian.

14. taula. Euskaraldian izena eman duten entitateetako langileen batez besteko euskara-maila (%)

		Ondo edo nahiko ondo hitz egiten dute	Ez dute hitz egiten, baina ondo edo nahiko ondo ulertzen dute	Ez dira gai ez hitz egiteko, ezta ulertzeko ere	Guztira
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>77,7</b>	<b>10,9</b>	<b>11,6</b>	<b>100,0</b>
EREMUA	EAE	78,5	10,9	10,8	100,0
	Iparraldea	62,6	14,1	23,3	100,0
	Nafarroa	78,0	9,1	13,1	100,0
SEKTOREA	Administrazioa, ent. publikoa	75,2	12,5	12,3	100,0
	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	86,4	6,7	7,0	100,0
	Zerbitzuak (enpresa txikiak eta establezimenduak)	72,1	12,7	15,6	100,0
	Gizarte mug., eragileak, elkarteak eta hedabideak	83,6	9,3	7,1	100,0
	Industria enpresak	70,6	14,8	14,7	100,0
GUNE SOZIOLINGUISTIKOA	Eusk < %20	62,5	12,0	25,5	100,0
	Eusk %20-%50 artean	65,4	16,3	18,5	100,0
	Eusk %50-%80	86,1	7,9	6,2	100,0
	Eusk >%80	93,9	2,7	3,4	100,0


Iturria: Siadeco, 2023

### 3) Parte hartzeko prozesua

#### a. Informazioa jaso

- Euskaraldiaren herri batzordeetatik egindako sustapen lanarekin lortzen da, batez ere (% 58,0), entitateak informatzea, beste informazio iturri batzuetatik ere informazioa jaso arren (hedabideetatik, erakunde publikoetatik, sare sozialetatik, entitate bertako norbaitek edota beste entitate batek proposatuta).
- Iparraldean, Euskaraldian parte hartzeko proposamena entitate bertako norbaitek egindako entitateak gutxiago izan dira (% 37,5). Nafarroan, erakunde publikoen bitartez informazioa jaso duten entitateen portzentajea izan da baxuagoa (% 37,7). Sektoreka, handienak diren industria sektoreko lantegiekin izan dute erakunde publikoek hartu-eman gehien, Euskaraldiaren berri emateko.

9. grafikoa. Nola izan duten Euskaraldia ekimenaren berri (entitateen zein ehunekok jaso duen informazioa kanal bakoitzetik) (%)



Iturria: Siadeco, 2023.

## b. Arrazoiak

- Euskararen erabilera areagotzea eta euskararen aldeko konpromisoa adieraztea, biak izan dira entitateen erdia baino gehiagorentzat (% 53,5) Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusiak. Entitateen herena pasatxok (% 36,0k), soilik euskararen aldeko konpromisoagatik hartu du parte; gainerako % 9,8ak, euskararen erabilera areagotu nahirik.
- Hezkuntzan (% 41,9) eta gizarte alorreko erakundeetan (% 51,1), euskararen aldeko konpromisoa adierazteak garrantzi handiagoa hartzen du. Soilik euskararen erabilera handitzearekin lotura egin duten proportzioak altuagoak dira berriz, industria sektoreko lantegietan (%25,5) eta administrazio publikoaren eremuko erakundeetan (%20,4).
- Eremuari erreparatuta, Iparraldean, soilik “euskararen erabilera handitzea” erantzun duten entitateen ehunekoa altuagoa da (% 16,1).

15. taula. Entitateen arrazoiak Euskaraldian parte hartzeko (%)


		Zein izan da zuen entitateak edo egoitzak Euskaraldian parte hartzeko arrazoi nagusia?				
		Euskararen erabilera handitzea	Entitatearen euskararen aldeko konpromisoa adieraztea	Aurreko biak maila berean	Ez dakit	Guztira
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>9,8</b>	<b>36,0</b>	<b>53,5</b>	<b>0,7</b>	<b>100,0</b>
EREMUA	EAE	9,5	35,8	54,0	0,7	100,0
	Iparraldea	16,1	36,2	47,6	0,0	100,0
	Nafarroa	9,5	38,2	51,9	0,4	100,0
SEKTOREA	Administrazioa, ent. publikoa	20,4	27,5	51,7	0,4	100,0
	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	15,7	41,9	42,4	0,0	100,0
	Zerbitzuak (enpresa txikiak eta establezimenduak)	7,5	25,8	65,3	1,4	100,0
	Gizarte mug., eragileak, elkarteak eta hedabideak	6,2	51,1	42,7	0,0	100,0
	Industria enpresak	25,5	33,2	41,3	0,0	100,0
GUNE SOZIOLOGIKOA	Eusk <% 20	12,7	27,3	59,2	0,8	100,0
	Eusk %20-%50 artean	11,5	32,0	56,0	0,5	100,0
	Eusk %50-%80	9,6	38,5	51,9	0,0	100,0
	Eusk >%80	1,5	44,5	48,9	5,1	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

### c. Langileak informatu

- Hiru entitatek bik (% 66,9) Euskaraldia ekimenari buruz langileak informatuak egoteko ahalegina egin dutela adierazi dute. Langileak informatzeko behar besteko ahaleginik egin ez dutela erantzundako entitateen ehunekoak altuagoak dira, Iparraldean eta administrazio publikoaren eremuko erakundeetan.
- Ariguneen funtzionamendua ondo ulertu ote den galdetuta, ariguneetako kide guztiek edo gehienek ulertu dutela erantzun du hiru entitatek bik (% 68,4).

**10. grafikoa.** Entitateko ariguneetako langileetatik zenbatek ulertu duten ongi ariguneen funtzionamendua (entitateen %)



Iturria: Siadeco, 2023.

#### d. Ariguneetako kideen parte-hartzea

- Euskal Herriko entitate gehienetan (% 72,4), ariguneko kide guztiek edo gehienek parte hartu dute ariketan, eta proportzio hori altuagoa da, hezkuntza zentroetan (% 77,1), gizarte alorreko entitateetan (% 76,8), eta bereziki, gune linguistiko euskaldunenean ere (% 91,2). Nabarmen baxuagoa berriz, Iparraldeko entitateetan (% 51,4), administrazio publikoko erakundeetan (% 55,7), eta bereziki, industria sektoreko lantegietan (% 33,8).

16. taula. Entitateko zenbat kidek hartu duten parte ariketan (entitateen egoitzen %)


		Denek	Gehienek	Erdiek	Gutxik	Inork ez	Ez dakit	Guztira
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>47,9</b>	<b>24,5</b>	<b>12,0</b>	<b>11,6</b>	<b>0,1</b>	<b>3,9</b>	<b>100,0</b>
EREMUA	EAE	48,2	24,9	12,0	11,0	0,0	4,0	100,0
	Iparraldea	34,4	17,0	17,5	23,2	1,3	6,6	100,0
	Nafarroa	52,1	24,9	9,7	10,9	0,4	1,9	100,0
SEKTOREA	Administrazioa, ent. publikoa	23,6	32,1	18,6	22,9	0,0	2,8	100,0
	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	49,4	27,7	13,1	6,5	0,3	3,0	100,0
	Zerbitzuak (enpresa txikiak eta establezimenduak)	51,1	22,7	11,5	11,6	0,1	2,9	100,0
	Gizarte mug., eragileak, elkarteak eta hedabideak	52,4	24,4	8,8	8,4	0,0	6,0	100,0
	Industria enpresak	12,6	21,2	28,0	33,7	0,0	4,6	100,0
GUNE SOZIOLINGUISTIKOA	Eusk < %20	39,5	23,3	12,4	18,9	0,9	4,9	100,0
	Eusk %20-%50 artean	38,3	25,3	15,7	18,3	0,2	2,3	100,0
	Eusk %50-%80	53,3	23,7	10,5	7,3	0,0	5,2	100,0
	Eusk >%80	64,6	26,6	3,6	1,7	0,0	3,6	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

## e. Motibazioa

- Entitateetako solaskideen arabera, ariketa egiteko motibazio-maila handia zegoen Euskaraldiaren aurretik; 10 entitateetik 7k (% 71,7) langile edo partaideen motibazioa oso handia (% 25,5) edo handia (% 46,2) zela erantzun zuen. Gero, Euskaraldian zehar egindako inkestako datuen arabera, motibazioak behera egin zuen zertxobait, % 71,7tik % 66,6ra. Eta hirugarren momentuan egindako inkestaren datua, berriz, hau da: Euskaraldia amaitzetik ia bi hilabetera, bigarren momentukoa baino altuagoa da datua (% 71,4). Hala ere, kontuan hartu behar da, lehen bi momentuetan galdetutakoa eta hirugarrenean galdetutakoa ez direla juxtu gauza bera izan.

**11. grafikoa.** Entitateko kideen motibazio-maila Euskaraldia ariketarekiko (aurretik eta Euskaraldian zehar) eta euskararen erabilera bultzatzen jarraitzeko (%)



Iturria: Siadeco, 2023.


- Entitate-motari erreparatuta, motibazio-mailarik baxuena administrazio-publikoko langileei dagokie, eta altuena, gizarte alorreko elkarteei. Euskal Herriko eremuen arabera, Iparraldeko datuak dira ezberdinenak; Euskaraldian parte hartzeko motibazioa, baxuagoa da Iparraldeko entitateetan, bai Euskaraldiaren aurretik bai Euskaraldian zehar; aldiz, ondoren, Euskara bultzatzen jarraitzeko motibazioa altuagoa da. Nafarroako entitateetan, nahiz eta joera errepikatu, motibazio-mailaren datuak positiboagoak dira hiru momentuetan.

#### 4) Ariketako jarduna

##### a. Jarritako helburuak

- Ariguneetako kideen arteko harreman formaletan (% 49,0) eta informaletan ere (% 52,9), dena edo ia dena euskaraz egitea izan da entitateen erdia inguruk jarritako helburua.
- Aldiz, herritar, bezero edo bazkideekiko harremanetan, helburu apalagoak jarri dira; harreman horietan euskara gehiago erabiltzea izan da entitateen % 39,8ren helburua eta dena edo ia dena euskaraz egitea % 32,6rena. Bezeroei lehen hitza euskaraz egitea, bost entitatetik batek (% 20,5) jarri du helburu modura.
- Hornitzaileekiko harremanetan ere, euskara gehiago erabiltzea erantzun du entitateen multzo zabalena (% 36,1), baina lehen hitza euskaraz egiteari ere garrantzia eman zaio (entitateen % 24,2). Hala ere, kontuan hartu behar da, Euskaraldian izena emandako entitate askok, euskararen erabilera-maila altua dutela lehenagotik.

12. grafikoa. Entitateen helburuak Euskaraldirako (%)




Iturria: Siadeco, 2023.



## b. Txapa eta Euskaraldiko identifikagarrien erabilera

- Ahobizi edo belarriprest moduan izena emandako entitateetako langile denek edo ia gehienek txapa soinean eramandako entitateak hamarretik sei eskas dira (% 57,1); “langileen erdia baino gehiagok” erantzun du, berriz, entitateen % 17,1ek.
- Erakundeko langile gehienek txapa jarri duten entitateen ehunekoa baxuagoa da, Iparraldeko entitateetan (% 69,7), administrazio publikoko erakundeetan (% 67,6), gizarte-alorreko elkarteetan (% 65,9) eta industriako lantegietan (% 67,3). Altuena berriz, zerbitzuen sektoreko establezimendu txikietan (% 80,6).
- Bestalde, Euskaraldiko kartelak eta identifikagarriak, ariguneak sortu diren toki gehienetan jarri dira (% 88,4). Baliagarriak diren galdetuta, “maila altuan” (% 40,5) edo “maila oso altuan” (% 7,9) adierazi duten entitateak, erdia inguru dira (% 48,4). Sektoreari jarraiki, zerbitzu pribatuetan, identifikagarri horien eragina handiagoa izaten dela jaso da, eta baxuagoa berriz, administrazio publikoan eta industriako lantegietan. Iparraldean, txikiagoa izan da identifikagarrien eragina.

13. grafikoa. Identifikagarriak zenbateraino izan diren baliagarriak euskara gehiago erabiltzeko (%)




Iturria: Siadeco, 2023

## 5) Euskaraldiaren eragina

- Harreman-mota guztietan, Euskaraldiaren hamabostaldiko erabilera-datuak altuagoak dira, Euskaraldiaren aurreko egoerarekin alderatuta. Harremanak euskaraz edo euskaraz gehiago diren entitateen ehunekoan, neurtutako harreman-mota ezberdinetan, 6 eta 13 puntu arteko igoerak izan dira. Datu zehatzak hauek dira:
  - Herritar, bezero edo bazkideekiko harremanetan, 13 puntuko igoera, % 52,3tik % 65,3ra.
  - Ariguneetako kideen arteko harreman informaletan ere, 13 puntuko igoera, % 63,4tik % 76,0ra).
  - Ariguneetako kideen arteko harreman formaletan, 11 puntuko igoera, % 60,5etik % 71,9ra).
  - Euskararen erabilera-maila baxuagoa da hornitzaileekiko harremanetan, baina Euskaraldiarekin lortutako igoera ia 11 puntukoa izan da baita ere, (% 32,2tik % 42,8ra.)
- Gero, Euskaraldiko bigarren neurketatik hirugarrenera, hau da, Euskaraldiko hamabostalditik 2023ko urtarrilera, 6 eta 7 puntu arteko jaitsierak gertatu dira harreman-mota gehientsuenetan. Baina, Euskaraldia amaitu eta handik ia bi hilabetera egindako neurketako datuak, Euskaraldiaren aurrekoak baino altuagoak dira:
  - 7 puntuko igoera: herritar, bezero edota bazkideekiko harremanetan, ariguneetako kideen arteko harreman informaletan eta aurreko Euskaraldian parte hartutako entitateekiko komunikazioetan ere.
  - 5 puntu pasatxoko igoera, ariguneetako partaideen arteko harreman formaletan.
  - Azkenik, 4 puntuko igoera hornitzaileekiko harremanetan.
- Euskaraldiaren aurretik ondorenera lortutako irabaziei erreparatuta, harreman-mota guztietan, Euskaraldiarekin lortutako igoerak, Iparraldean txikiagoak izan dira. Sektorari erreparatuta, industria sektoreko lantegietakoak dira lehen emaitzarik positiboena, eta zerbitzu pribatuetan, bigarren positiboena.
- Entitateetako ordezkari eta solaskideekin egindako batzarretako informazio kualitatiboa aztertuta, Euskaraldia ekimenaren eraginari buruz, honakoa ondoriozta daiteke:
  - Euskaraldia baliagarria da, euskara entitateen agendan kokatzeko.
  - Baliagarria da euskal hiztunak ahalduntzeko, euskaraz eroso(ago) aritzeko aukerak sortzeko.
  - Lortzen da, hein batean, hizkuntza-ohiturak aldatu eta mantentzea ere.
  - Hizkuntza-ohiturak aldatzea zaila dela, oso barneratua dago.
  - Entitateentzat aukera bat eskaintzen du euskararekiko konpromisoa erakusteko.
  - Euskararen erabilera oso zabaldua dagoen eremuetan, Euskaraldiaren eragina txikiagoa da.
  - Aurreko edizioetan baino inpaktu txikiagoa lortu dela irizten dute entitateetako solaskideek ere.

**14. grafikoa.** Euskararen erabilera entitateetan, harreman motaren arabera, Euskaraldiaren aurretik, Euskaraldian zehar eta ondoren (erantzutea dagokien entitateen erantzunekin kalkulaturako %) (dena edo ia dena + gehiena euskaraz)




Iturria: Siadeco, 2023.

**a. Ariketa egiteko erraztasun/zailtasun-maila**

- Entitateetan ez da aparteko zailtasunik izan ariguneetako ariketa egiteko. Ariguneak euskaraz lasai aritzeko guneak izan diren entitateei galdetuta, 0tik 10erako eskalan, 0 “batere ez” eta 10 “erabat” izanik, batez besteko balioa 8,41 da.
- Zailtasun gehiago izan da, Iparraldeko entitateetan (7,34), eta jarduerari erreparatuta, administrazio publikoaren erakundeetan (7,76) eta industriako lantegietan (8,03).
- Eremu erdaldunenetan kokatutako entitateetan zailtasun gehiago izan da (lehen eta bigarren gune soziolinguistikoko entitateen datua 7,97 eta 7,75 baita). Zailtasun gutxiago izan da gizarte alorreko erakundeetan (8,84) eta hezkuntzan (8,56), eta gehiago berriz, administrazio publikoko erakundeetan (7,76), eta industria sektoreko enpresetan (8,03) ere.
- Harreman-motaren arabera, hornitzaileekiko harremanetan izan da ariketa egiteko zailtasun gehien. Entitateen ia erdiak erantzun du (% 48 inguru), hornitzaileekiko harremanetan ariguneko ariketa egitea, zaila edo oso zaila gertatu zaiela.

**15. grafikoa.** Ariguneko ariketa egiteko erraztasun edo zailtasun-maila, Euskaraldian zehar eta ondoren (erantzutea dagokien entitateen erantzunekin kalkulaturako %)



Iturria: Siadeco, 2023.

## b. Hizkuntza-ohituren aldaketa

- Euskaraldiaren aurreko edizioan ere parte hartutako entitateen ia heren batek (% 31,3), lortu egin du hizkuntza-ohiturak aldatzea. Entitateen % 21,3k erantzun du, orduetik euskara gehiago erabiltzen duela, nahiz eta erdara ere presente egon, eta % 10,0k, berriz, lortu duela euskara izatea entitateko hizkuntza nagusia.
- 2022ko ariketaren ondoren, 4 entitatetik 1 pasatxok (% 26,4) lortu du hizkuntza-ohiturak aldatzea, Euskaraldian zehar eta bukatu ondoren ere. Sektoreari erreparatuta, industria sektoreko enpresa eta administrazio publikoko erakundeei dagozkienak dira datu negatiboenak; horietan, hizkuntza-ohiturak aldatzea lortu dela erantzun dutenak % 16,5 eta % 17,4 dira, hurrenez hurren.
- Erakunde barneko harreman informaletan eragin handiagoa izan du (% 47,5), harreman formaletan baino (% 38,1). Eraginik handiena eta txikiena ere, kanpora begirako komunikazioetan izan du; handiena, herritar, bezero edo bazkideekiko harremanetan (% 53,0), eta txikiena, hornitzaileekiko harremanetan (% 24,8).

**82. taula.** Euskaraldiaren 2022ko edizioari esker, entitateen hizkuntza-ohituretan lortutako euskararen aldeko aldaketak (%)

		Bai, Euskaraldian zehar eta bukatu eta gero ere bai	Bai, Euskaraldian zehar, baina bukatu eta gero, ez	Ez, euskararen erabileran ez du eraginik izan, euskararen erabilera ez delako areagotu	Ez, euskararen erabileran eraginik ez izan arren, nagusiki euskara erabiltzen da	Ez dakit	Guztira
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>Guztira</b>	<b>26,4</b>	<b>17,1</b>	<b>17,5</b>	<b>30,5</b>	<b>8,5</b>	<b>100,0</b>
EREMUA	EAE	27,0	18,4	16,5	29,4	8,7	100,0
	Iparraldea	29,0	5,3	32,7	29,9	3,0	100,0
	Nafarroa	18,7	11,8	19,7	40,8	9,0	100,0
SEKTOREA	Administrazioa, ent. publikoa	17,4	22,3	25,7	26,3	8,2	100,0
	Hezkuntza (ikastetxe, akademia, IGE)	24,3	14,5	15,9	39,3	6,0	100,0
	Zerbitzuak (enpresa txikiak eta establezimenduak)	28,1	23,0	17,8	21,7	9,4	100,0
	Gizarte mug., eragileak, elkarteak eta hedabideak	28,0	6,9	15,2	41,8	8,1	100,0
	Industria enpresak	16,5	28,8	23,7	21,9	9,2	100,0
GUNE SOZIOLOGIKOA	Euskaldunak <%20	23,5	16,0	23,2	34,3	3,0	100,0
	Euskaldunak %20-%50	24,2	22,3	28,0	19,7	5,7	100,0
	Euskaldunak 50-%80	27,8	15,3	10,9	34,6	11,3	100,0
	Euskaldunak >%80	29,0	4,9	4,4	53,9	7,7	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

## c. Bestelako onurak

- Euskararen aldeko irudia gizarteratzeko balio die Euskaraldiak entitateei, hala erantzun dute entitateen bi herenek (% 65,6); horrez gain, “gizarte-erantzukizuna” erakusteko baliagarri izatearekin ere lotu du entitateen erdiak baino gehiagok (% 58,2). Entitate modura euskararen aldeko irudia ematea onuragarri ikusten dutenak, proportzionalki gehiago dira, industria sektoreko lantegietan (% 77,7), hezkuntzako zentroetan (% 72,6), eta administrazio publikoko erakundeetan (% 71,0).

## 6) Aurrera begira

- Asko dira Euskaraldiarekin lortutako aurrerapenari jarraipena eman nahi dioten entitateak; zehazki, hiru entitateetarik batek (% 34,6) erantzun du, Euskaraldiak hizkuntza-ohituretan ekarritako aldaketak etorkizunean ere mantenduko direla uste duela, eta hori hala izateko neurriak hartuko dituela gainera; entitateen beste multzo txikiagoa batek (% 17,7) Euskaraldiarekin lortutakoari eutsiko diola uste du, baina inolako neurririk hartu gabe.
- 2022ko edizioan izena emandako entitate gehienek, hurrengoan ere hala egingo dutela aurreikusten da. “Zalantzarik gabe” erantzun du % 76,3k eta “ziurrenik bai” gainerako gehienek (% 20,8).
- Aurrera begira, zer egokitu, zer hobetu galdetu dugunean, aztergai hauek ipini dituzte entitateetako solaskideek mahai gainean: ariguneetako ariketa prestatzeko denbora gehiagoren beharra, gazteen parte-hartzea indartzeko estrategietan pentsatu beharra, bereziki ostalaritza eta merkataritzako establezimenduetan eragitearen garrantzia, ingurune digitala ere kontuan hartu beharra, edizio batetik bestera denbora-tarte handiagoa utzi, eta instituzioek, koherentzia gehiago izan beharra hizkuntza politika egiterakoan, norbanakoei bakarrik eman gabe ardura guztia.

*Izen-emate sistemari buelta bat eman. Lanean izen eman edo herrian, guztia argiago gera dadin. Izen-emate prozesua korapilatsua da entitate askorentzat. Badakigu ez dela erraza hori konpontzea, baina egin beharrekoa da*

Bizkaia; entitateak

*Nik laugarrenen bat balego [...] bai uste dut beharrezkoa dela ze hizkuntza-ohiturak aldatzeko denbora behar da, kontzientzia, sukalde lana da ezinbestekoa eta egun batetik besterako kontua ez da hau. Nola egin beharko litzatekeen? Hori jada ez dakit. Hemen errealitate desberdinak daude [...] Lan-eremuan baldintza batzuk eman behar dira benetan lasai jarduteko eta hor ariguneen kontua horretara dator, baina hori sustraitu behar da, egun batetik bestera ez da egiten. Baina ez dut uste bide okerretik goazenik*

1.Eztabaida-taldea. Administrazio publikoa eta hezkuntza EAEn\_3

*Langileek berrikuntzaren beharra azpimarratu dute maiz, Euskaraldiaren formatua aldatzearen garrantzia, esentzia aldatu gabe jakina*

Bizkaia; entitateak

*Prestakuntza gakoa da (parte-hartzaile guztientzat edo gehienentzat eskaintzea modu anitz, erakargarri eta askotarikoan, hori izatea zentralitatea), progresibitatearen lanketari lekua eginez*

Gipuzkoa; entitateak

*Aldaketa ez dakit nondik suertatu daitekeen; nik uste dut pixka bat txapen harira. Txapena izan daiteke ikurra eta zerbait txikia, baina hortik hasita ere aldaketaren bat egon behar dela irudiaren aldetik, ekimena bera [...], gazteak gehiago inplikatzeko bideak bilatu beharko lirateke... [...] Nik ikusi dudana ere egondako bileretan, egondako foroetan, egondako Euskaraldia aurrera ateratzeko bildu garenok adin batekoak ginela eta gazteak gutxi. Eta gazteak sartu behar dira hor buru-belarri nolabait*

1.Eztabaida-taldea. Administrazio publikoa eta hezkuntza EAEn\_3

*Identifikagarriaren erabilera aztertu beharko litzateke. Lantokian gehiago ikusi dira txapak-eta, baina lantokitik kanpo oso gutxi*

[Bizkaia; entitateak](#)

*Niretzat ostalaritza eta merkataritza dira sektore potenteak euskara bultzatzeko gure hemengo jendearekin. Hemen normalean erabiltzen da euskara bakarrik umeekin eta orduan erabiltzen badugu dendetan eta tabernetan, ba seguraski jende helduagoa animatzen da euskara erabiltzera*

[5.Eztabaida-taldea. Arabako herri merkataritza eta ostalaritza\\_3](#)

*Ondo legoke Euskalaldia hasi baino lehen, Euskalaldian parte hartuko duten enpresen bilera bat egotea non ideiaak pausatu eta halakoak aurrez aurretik ikustea eta honen bidez ideiei berriak proposatzea*

[Bizkaia; entitateak](#)

*Nik falta sumatu dut, metodologikoki, ingurune digitalean. Ingurune digitala gure bizitzan errealitate handi bat da. Eta ordu asko jaten dizkigu. Mugikorrei zenbat aldiz begiratzen diegu? Interneta da gure lan-tresna handietako bat*

*Gure 24 orduko espazio-funtzio linguistikoak berrikusi behar ditugu. Zeren hori dena orain arte egin izan da internetaren aurreko eskemekin (...) Euskalaldiak nola ez dio heldu honi, azken edizioan?*

[6.eztabaida-taldea\\_Gipuzkoako gizarte mugimenduak](#)

*Tarte handiagoa. Bi urtean behin beharbada azkarregi da (...). Nik uste dut olinpiadak bezala, lau urtean behin, Bertsolari Txapelketa Nagusia bezala. Irrika gehiagorekin hartzeko ere*

[6.eztabaida-taldea\\_Gipuzkoako gizarte mugimenduak](#)

*Ados nago behar dela zerbait berritzailea jarraitu nahi bada Euskalaldiarekin*

*Ekimenak badaukala onarpen sozial bat. Eta jendeak egiten duela besteek egiten dutelako ere bai. Baina batere kontzientziarik gabe*

*Ez izatea txapa jarri eta ia. Hausnarketa bat eman behar dela*

[6.eztabaida-taldea\\_Gipuzkoako gizarte mugimenduak](#)

*Eskertuko nuke, Euskalaldiaz gain, euskararen aldeko beste politika batzuk jarriko balira martxan (...) Ez da bakarrik jendearengan jarri behar ardura*

*Norbanakoei eman beharrean ardura guztia (...) Konpromiso zabalagoa ikusi behar du gizarte osoak honen inguruan*

[6.eztabaida-taldea\\_Gipuzkoako gizarte mugimenduak](#)

*Koherentzia ikusi behar dut. Zeren nik uste dut hau pixka bat "Show Must Go On" dela*

*Euskara biziberritzearen gaia agendetatik kanpo dago. Enpresa handietan eta herri honetan bakailaia moztan duten etxe nagusietako agendetatik kanpo dago*

*Jaurlaritzatik hasita (...) Eredua eman behar duena ez da eredua ematen ari*

*Koherentzia pixka bat. Sinisten al dugu esaten dugun hori?*

[6.eztabaida-taldea\\_Gipuzkoako gizarte mugimenduak](#)